



EAErako CURRICULUMA IRUZUR BERRIA

Gaur, EAeko Hezkuntza Sailburuak, Tontxu Campos alegia, Legebiltzarreko Hezkuntza batzordean aurkeztu duen EAeko curriculum dekretua, LABentzat Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikasle zein herritar orori egingo zaion iruzur berria baino ez da.

LAB sindikatuak EAeko dekretu honetaz egiten dituen irakurketa eta proposamenak hauexek dira:

- ❖ **Aurkeztu den curriculum dekretu berria, EAerako curriculum da, izenaz eta izanaz zeharo ezberdina Euskal Herri osorako planteamendu pedagogikoa den Euskal Curriculumarekiko.** Euskal Curriculumuma euskal herritarrok Euskal Herriaz ez ezik munduaz dugun ikuspegiaren irudikapena da, hau da, ikasleek gizabanako eta gizartekide gisa, beraien garapen osoa Euskal Herrian eta mundu zabalean bizitzeko gaitasunak lor ditzaten. **EAeko curriculum dekretua berriz, curriculum autonomikoa da,** Espainiako Gobernuak curriculumaren %55a finkatu ondoren, geratzen den %45a Jauralaritzak osatu du. EAeko curriculum dekretua curriculum ezarria, Espainiatik inposatutako curriculum. **LAB sindikatutik apustua egiten dugu Hezkuntza Sistema Propioaren, Euskal Herriko Eskola Publiko Berriaren bizkar hezurra izango den curriculum burujabearen alde, hots, Euskal Curriculumaren alde.**
- ❖ **Bi curriculum hauek izenaz eta izanaz baita egiteko erabili den prozeduran ere ezberdinak dira.** Euskal curriculumuma Euskal Herri osoko hezkuntza eta gizarte eragileen partaidetzarekin egiten ari bada ere, Tontxu Campos Sailburuak aurkeztutakoak partaidetza eskasa izan baitu, eta iragan ikasturtean egindako aurkezpenak erabateko porrotak izan baitziren.
- ❖ EAeko Curriculumak aurkezten duen **herritasun interesgarria da, curriculumaren transmisioa gaitasunen garapenen bidez egitea.** Gaitasun orokorrak eta oinarrizkoak proposatzen ditu, Euskal Curriculumak berak planteatzen dituen gaitasun orokorrak berberak, **baina oinarrizko gaitasunak LOEk finkatzen dituenak dira.** Eta oinarrizko gaitasun horiek dira gelan landu beharrekoak, eta ondorioz ikasleek eskuratuko dituztenak.
- ❖ Gaitasun soziala eta hiritarra horretan **Espainiar Konstituzioan agertzen diren baloreak eta betebeharrak barneratzea proposatzen da,** euskal herritarren (katalana, galiziar, espainiar) eskubideak urratzen dituen, Euskal Herriaren aitortza eta erabakitze eskubidea ukatzen dituen Konstituzioaren baloreak eta betebeharrak.
- ❖ Halaber ere, **hiritartasuna ikasgaia proposatzen du,** baina LABetik ikusten dugu herritartasuna matematika edo heziketa fisikoan ere landu daitekeela. Eta **herritarrek heziagoak lortze aldera, botere publikoek badute zeregin nagusiagoa ikasgai bat asmatzea baino. Aukera berdintasun handiagoz, ongizate handiagoz, hezkuntza handiagoz, herritar hobeak. Horretarako herritarren bizi baldintzak hobetu behar dira, pertsonen hezkuntzan eta ongizatean inbertitu behar da. Politika sozialak (jantoki, garraio, testu liburu, material didaktiko-pedagogikorako diru-laguntzak edota doakotasuna) garatu behar dira familiak haurren hezkuntza beste lasaitasunaz bizi dezaten.**

IKASTOLAK



estatus politikoa
Orain
2007
IRAILA

Informatzen

- ❖ **Zehar lerro gisa ez dago emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunerako proposamenik.** Emakume aldagaia ez da curriculum osoan aldagai bezala agertzen. Genero ikuspegitik behin eta berriro akatsak agertzen dira, generiko bezala maskulinoa agertzen.
- ❖ EAEko curriculum **dekretu honek erlijio ikasketak jasotzen ditu**, eta LABen aburuz erlijioa norberaren esparruari dagokio, eta ondorioz ikastetxetan helarazten den hezkuntza, hezkuntza laikoa izan behar du.
- ❖ **Euskal Herria eta Espainiako beste zonaldeak, sarritan eta era ezberdinez loturik aurkezten zaizkigu.** Nortasun historiko eta kulturala lantzerakoan, geografiaz ari denean, Euskal Herria eta gainerako Iberiako penintsula edo Espainiako beste zonaldeak erabiltzen ditu. Lurralde antolaketan, Espainiako lurralde antolaketa ikasleek bereganatu beharko dute. Ez da aipamenik egiten Ipar Euskal Herriaz, eta Frantziako egitura administratiboaz. Euskal Herriko lurralde aniztasuna Espainiarekiko lotuta agertzen du. Ez du berezko identitaterik onartzen. Ukatu egiten du.
- ❖ Dekretuak **ez du kuestionatzen egun dugun Europa.** Dekretuak ez du ezer planteatzen European dauden beste errealitate linguistiko eta kulturalak, European dauden estaturik gabeko nazioez.
- ❖ Dekretuak Haur **Hezkuntza etapa osoa, 0-6, ahaztu egiten du**, etapa honek ikasleen garapen integralean, hezkuntzarako aukera berdintasunean, sozializazio prozesuan, euskara ikas prozesuan duen garrantzia ezkutatu eta gutxituz. Hezkuntzarako ikasleek duten eskubidea ez da soilik bermatzen 0-6 etapan eskola plaza bat eskainiz, Hezkuntza eskubidea haratagoa baitoa.
- ❖ EAEko Dekretuak hezkuntzaren gainean **ikuspegi profesionalista** agertzen du, dekretuak hizkera eta ikuspegi neoliberalak bereak egiten ditu, oinarrizko hezkuntza lan munduari begira jartzen baitu.
- ❖ EAEko dekretu honek **Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik pasako diren ikasleei euskararen ezagutzaz salbuetsita egotea proposatzen du**, eta LAB sindikatuan Euskal Herrira datozen guztiek, nahiz eta denbora mugatura izan, **bertako hizkuntza eta kultura ezagutzeko eskubidea eta betebeharra dutela uste dugu.**

Honengatik guztiagatik iruzur berri baten aurrean aurkitzen garela, EAEko Hezkuntza Sailak iruzurra egin duela diogu. Gaurkoa lehenengo saioa besterik ez da izan. Honen ondoren prestakuntza eta dekretu berria agertuko duten testu liburuak eta material pedagogikoa etorriko dira. **LAB sindikatutik irakaskuntzako langileei gonbitea: parte hartu ez dezaten egingo diren EAEko curriculum dekretuaren aurkezpenetan, parte hartu ez dezaten curriculum autonomiko honen prestakuntza saioetan, eta berri bat egin dezaten Euskal Herri osorako izango den proposamen pedagogikoarekin, Euskal Curriculumarekin.**

Euskal Herrian, 2007ko irailaren 26an.

<http://www.labsindikatu.org/sektoreak/irakaskuntza/ikastolak>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparraldean
Fermin Lasuen, 13 behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea, 62 behea 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	Martzelo Zelaieta 75, 2-A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	7 Coursic KARRIKA 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org